

URRETXU / Irakurle taldearen ikasturteko azken bilkura asteazken honetan

Urretxuko Euskaltegiak bi ekimen berezi antolatu ditu datorren astearte eta asteazkenerako. Asteartean, hilak 24, 'Irakeko Kurduak, bazterreko bizitzak' dokumentala izango da ikusgai; eta asteazkenean, berriz, irakurleen taldeak egingo duen bilera.

Asteartean eskainiko den dokumentalak 2009ko Lekeitioko Zinemaldiko lehen saria irabazi zuen, eta 2009an ZINEBI- Bilboko Nazioarteko Zinemaldian parte har-tzeko aukeratu zuten; dokumentalari esker, kurduak Iraken egun bizi duten egoeraren berri izan dezakegu, eguneroko errealitaterako hurbiltze soziologikoaren bitartez. Borja Portuondo elkarlanean aritu da produkzioa egiteko orduan. Egilea Karlos Zurutuza da.

Dokumentalean Irakeko Kurdistango 5 istorio izengabe agertzen dira: Ibrahim-ek gimnasio/spa bat zabaltzen du Dohuk hirian; Abdulah minaz jositako lurrian bizi denaz ohartzen da, bere etxe propioa eraiki ostean; Welat, Roj eta Bozan PPKko gerrillariak dira Kandil-eko mendietan; Mushir-en etxea desagertu egin zen turkiarren bonbardaketa baten ostean; Ster dantza taldea, Siriako kurdu errefuxiatuek osatutakoa.

Kurduak Ekialde Hurbileko komunitate handiena dira, Arabia, Turkia eta Pertiaren atzetik. Iraken 5 milioi kurdu daude eta herrialdeko iparraldean bizi dira. 1991ko lehen golkoko gerraren ostean, autonomia maila oso esanguratsua lortu zuten. Une honetan berreraikitze-fasean daude, Saddam Hussein-ek sustatutako sarraski-politikaren garaia ostean.

Dokumentalaren iraupena 30 minutukoa da. Aurretik Karlosek dokumentala aurkeztuko du eta, dokumentalaren ostean, solasaldian egiten diren galderari erantzungo die, euskara eta gaztelaniaz.

Irakurle Taldea

Bestalde, asteazkenean egingo du Urretxu-Zumarragako irakurle taldeak 2010-2011 ikasturteko azken bilkura. Ohi bezala, arratsaldeko zazpietan izango da, baina oraingoan Urretxuko liburutegian bildu ordez, Santa Barbaran bilduko da taldea.

'Ur Uherrak', Aingeru Epaltzaren eleberria da taldeak aztertuko duen liburua. Eleberri honetan, Billi gazteak pago eta larreen artean paseatzen du bera larru kolorearen zama. Saigongo txinatar auzoanerosi parasol koloredun baten gerizapean. Jazintok, berriz, bere azken adinaren iraulieran, ostatutzarretan itotzen du plazagizon eta aita gisa pairatu duen porrota. Bakarrik nahiz elkarrekin, biek frogatuko dutezein zaila den norberaren bizitzaren ugaldea tizas zabaleraino eramatea, indar kontrolagaitzek urak uhertzen dituztenean. Aingeru Epaltza, kazetari bizibidez, Euskal Herriko hainbat komunikabidetan lan egin ondoren, Nafarroako Gobernuaren euskarazko itzultzaile da gaurregun. Iruñeko Udalaren Euskarazko Literatur Saria (1985) eta Xalbador Saria (1991) irabazi ditu. Mugetan irri, Sasiak eta begiak baditik, kaikugileak, eta garretatik erauzitakoak dira argitaratutako liburuen izenburuak.

Gonbidapena hor doa beraz, interesa duen edonorentzat asteazkenean bileran parte hartzeko. Taldekide izan edo ez, liburuari buruzko inpresioak konpartitu nahi izanez gero, hurbildu Santa Barbarara.